

BESTELAKO XEDAPENAK

HAURRESKOLAK

2233

01/05-2022 ERABAKIA, maiatzaren 4koa, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketako langileen lanpostu-zerrenda onartzen duena.

Zuzendaritza Batzordearen 2022ko maiatzaren 4ko erabakiarekin, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketako langileen lanpostu zerrenda finkatzeko prozesua garatzen da.

Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dira lanpostu-zerrendak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeari jarraiki.

Onartutako lanpostu-zerrendan, lan-harremanen mendeko kudeaketako langileak ere ageri dira, Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetan jasotakoaren eta Lan Hitzarmenean egindako sailkapenaren arabera.

Erabakian berariaz jasotzen da lanpostu bakoitzaren izena eta dotazio zenbakia; Atxikita dagoeneko erakunde publikoa; Dedikazio-erregimena; bakoitzean beharrezko izan dadin zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen; Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna eta haren derrigortasun data.

Horrenbestez, Partzuergoaren Estatutuen 18. artikulua Zuzendaritza Batzordeari ematen dizkion ahalmenei jarraiki honako erabakia hartu du,

ERABAKIA

Lehenengoa.– Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketako langileen lanpostu-zerrenda onartzea. Zerrenda Erabaki honen Eranskinean ageri dira.

Bigarrena.– Eranskinean jasota ageri dira lanpostu bakoitzerako eskakizun diren titulazio akademikoak.

Era berean, ezinbestekoa da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna, EGA edo baliokidea edukitzea (ikus apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, 74 zenbakiko EHAA, 2012ko apirilaren 16koa eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 219 zenbakiko EHAA, 201eko azaroaren 15koa).

Hirugarrena.– Zerrendatutako lanpostuak kudeaketa arlokoak dira eta Eranskinean zehaztutako Haurreskolak Partzuergoko Eibarko egoitzara atxikita daude, ondorio guztietarako.

Laugarrena.– Eranskineko lanpostu-zerrendako lanpostuen dedikazio-erregimena lanaldi osokoa da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENGOA

Haurreskolak Partzuergoko gerenteari ahalmena ematen zaio onartutako zerrendetako akatsak zuzentzeko, halakorik egonez gero.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Eibar, 2022ko maiatzaren 4a.

Haurreskolak Partzuergoko gerentea,
ELENA AIZPURU SEGUROLA.

2022ko maiatzaren 24a, asteartea

ERANSKINA
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA
KUDEAKETAKO LANGILEEN LANPOSTU ZERRENDA

Kidegoaren balioidea	Kodea	Dot.	Lanpostuaren izena	Titulazio eskakizuna	HE	Der. Dat	Dedikazioa	Lantokia	Maila
A	K001	1	Giza baliabideetako arduraduna	Zuzenbideko lizentziatura edo gradua	3	03-05-2022	% 100	Eibar	24
A	K002	1	Kudeaketa ekonomikoko arduraduna	Enpresa Zientzietako edo Enpresa Zuzendaritza eta Administrazio lizentziatura edo gradua	3	03-05-2022	% 100	Eibar	24
A	K004	1	Planifikazio eta Arriskuen Prebentziorako arduraduna	Prebentzio eta Segurtasuneko gradua. Laneko arriskuen prebentzioko lizentziatura edo gradua; Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto edo unibertsitate gradua eta goi mailako teknikaria, espezialitate hauetan: laneko segurtasuna, higiene industriala eta ergonomia eta psikosozio logia aplikatua	3	03-05-2022	% 100	Eibar	24
B	K005	1	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	2	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	3	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	4	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	5	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	6	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	7	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	8	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K005	9	Kudeaketako teknikaria	Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto tekniko, unibertsitate gradua edo diplomatura edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K007	1	Prestakuntza eta Hezkuntza Laguntzako teknikaria	Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogiako lizentziatura edo gradua, magisteritza, edo balioidea.	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
B	K009	1	Arkitekto teknikoa	Arkitektura Teknikoa. Arkitektura Teknikoko gradua edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	21
C	K011	1	Arriskuen Prebentziorako erdi mailako teknikaria	Goi mailako Lanbide Heziketa arrisku Profesionalen Prebentziorako edo balioidea (laneko arriskuen prebentzioa, maila ertaina)	3	03-05-2022	% 100	Eibar	19
C	K013	1	Administrataria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16

2022ko maiatzaren 24a, asteartea

Kidegoaren balioidea	Kodea	Dot.	Lanpostuaren izena	Titulazio eskakizuna	HE	Der. Dat	Dedikazioa	Lantokia	Maila
C	K013	2	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	3	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	4	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	5	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	6	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	7	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	8	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	9	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	10	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	16
C	K013	11	Administraria	Goi mailako Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa edo balioidea	3	03-05-2022	% 100	Eibar	19